

# Mendizaletasuna Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA





**Mendizaletasuna**

# **HIZTEGIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren  
*Bibliotekak* sarearen katalogoa aurki daiteke:

**<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>**

Argitaraldia:	I.a, 2015eko urria
Ale-kopurua:	1.500 ale
© argitaraldi honena:	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra
Argitaratzalea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	<a href="http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm">http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm</a>
Azala:	Concetta Probanza
Inprimaketa:	Gráficas Irudi S.L.
ISBN:	978-84-457-3384-4
Lege gordailua:	VI 770-2015

## HITZAURREA

**E**uskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak onartutako hiztegia duzu hau. Hortaz, Batzordeak gomendatu egiten du hiztegi honetako terminologia erabiltzea.

Izan ere, Terminologia Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzeara, termino lehiakideen arteko lehentasunak jartza ponderazio-markak finkatuz, eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea. Terminologia Batzordeak urteko jarduketa-planetan jasotzen ditu horiek guztiak.

Hiztegi hau, Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa ([www.euskara.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm)) dago integratuta.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planei jarraituz. Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa

etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko.

Garaiaren arabera, gizartea aldatzen den neurrian, hizkuntzak ere aldatzen dira, bizirik badaude, behar beriei erantzuteko. Ondorioz, hizkuntza baten modernizatzearen eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa eta terminologikoa etengabe elikatu behar dira, hizkuntza bera normalizatzeko, batetik, eta erabiltzaileen premiei erantzuteko, bestetik.

Honakoa, hiztegiak jorratzen duen eremuko erabiltzaileen oinarrizko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, baita gure hizkuntzaren normalizazioaren eta eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok hizkuntza gero eta aberatsagoa izan dezagun.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 17a

**PATXI BAZTARRIKA GALPASORO**  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([www.euskara.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.net/euskalterm)) eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPek finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak<sup>1</sup> finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehentasunen arabera eguneratzzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengo, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminología.**

---

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16ko, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

**Hiztegian erabilitako ponderazio-markak:**

- (4) Termino normalizatua / gomendatua
- (3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegian erabilitako laburzapenak:

**eu** euskara

**es** español

**fr** français

**en** English

**Sin.** sinonimoa

**Ik.** ikus

## **NORMALIZAZIOA**

### **BATZORDE TEKNIKOA**

**Iratxe Goikoetxea** (aditua)

**Iñaki Gauna** (aditua)

**Jabier Agirre** (UZEI)

Koordinatzailea: **Araceli Díaz de Lezana**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

### **TERMINOLOGIA BATZORDEA**

**Patxi Baztarrika Galparsoro**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

**Eneko Oregi Goñi**, IVAPeko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea

**Jorge Giménez Bech**, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

**Maite Imaz Leunda**, IVAPeko ordezkaria

**Andoni Sagarna Izagirre**, Euskaltzaindiaren ordezkaria

**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEI) ordezkaria

**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua

**Joseba Erkizia Itoitz**, aditua

**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua

**Miel Loinaz Beristain**, aditua

**Alberto Atxabal Rada**, aditua

**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua

## UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

**Ekaitz Agirre.** Berria egunkaria

**Igor Aldalur.** Gipuzkoako Mendizale Federazioa

## **EREMU-ZUHAITZA**

---

### **1 Mendia**

- Izen geografikoak
- Mendiaren beraren “deskribapena”

### **2 Mendizaletasuna, kirol gisa**

- Ekintzak
- Modalitateak
- Alderdi teknikoak

### **3 Ekipamendua. Tresneria**

- Oinarrizko ekipamendua
- Ekipamendu teknikoa
- Orientazioko ekipamendua

### **4 Kirolak osasunaren gain dituen eraginak**

- Gorputzaren aldaketa eta egokitzapen fisiologikoak
- Osasun-lesioak. Istripuak

### **5 Meteorologia**

- Atmosfera. Presioa. Temperatura
- Eguraldiaren iragarpena: lainoak, hodeiak...
- Emergentzia eta arrisku-egoerak: ekaitza, suteak...

### **6 Alderdi administratiboak**

- Segurtasun-araauak eta gomendioak
- Federazioarekin lotutako alderdiak: lizenziak, aseguruak...

## AURKIBIDEA

---

### Bokabularioa sailka

1. MENDIA . . . . .	14
2. MENDIZALETASUNA, KIROL GISA . . . . .	23
3. EKIPAMENDUA. TRESNERIA. . . . .	30
4. KIROLAK OSASUNAREN GAIN DITUEN ERAGINAK . . . . .	39
5. METEOROLOGIA . . . . .	43
6. ALDERDI ADMINISTRATIBOAK . . . . .	45
 <b>EUSKARAZKO AURKIBIDEA</b> . . . . .	47
 <b>GAZTELANIAZKO AURKIBIDEA</b> . . . . .	55
 <b>FRANTSSEZEZKO AURKIBIDEA</b> . . . . .	61
 <b>INGELEZEZEKO AURKIBIDEA</b> . . . . .	67
 <b>ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b> . . . . .	73

# **BOKABULARIOA SAILKA**

## I. MENDIA

### **aldapa**

Ik. malda

|

### **altitude (4)**

Puntu edo maila jakin batetik itsas mailarekiko dagoen distantzia bertikala.

**es** altitud

**fr** altitude

**en** altitude

### **altuera**

Ik. garaiera

**2**

### **amildegi (4)**

Sin. erroitz (4)

**es** precipicio

**fr** précipice

**en** precipice

### **arrail**

Ik. pitzadura

**3**

### **arro (4)**

Ura ibai nagusi berera isurtzen duten lurren multzoa.

**es** cuenca

**fr** bassin

**en** basin

**4**

### **arroila (4)**

Ibai batek irekitako ibilgu edo ibar sakon eta estua, horma ia bertikalak dituena.

**es** garganta; foz; hoz; cañón

**fr** gorge

**en** gorge; canyon

**5**

### **aurpegi (4)**

Mendiaren isurialdeetako bakoitza. Orientazioa adierazteko, gailurrean gaudela pentsatu behar da: horrela, ipar-aurpegia esaten zaio gailurretik iparraldera begira dagoen aldeari.

**es** cara

**fr** face

**en** face

**6**

### **babes (4)**

Haizetik edo eguraldi txarretik babesteko lekua.

**es** cobijo

**fr** refuge

**en** shelter

**7**

### **baliza (4)**

Bidea adierazten duen edozein seinale (pintura, harriak...).

**es** baliza

**fr** balise; perche-repère

**en** wand

**8**

### **balkoi (4)**

Pareta batean dagoen plataforma. Bertara hurbil daiteke paisaia ikusteko.

**es** balcón

**fr** balcon

**en** balcony

**9**

### **begiratoki (4)**

Paisaia bati begira egoteko lekua, normalean horretarako egokitua.

**es** mirador

**fr** belvédère

**en** scenic point

10

**behe-mendi (4)**

- es**   baja montaña  
**fr**   baisse montagne  
**en**   low mountain

11

**bidea egin (4)**

- es**   encadenar una vía  
**fr**   enchaîner une voie; faire une croix  
**en**   wire a route

12

**bidea ireki (4)**

- es**   abrir una vía  
**fr**   ouvrir une voie  
**en**   open a route

13

**bidebanatze (4)**

Ibilbide jakin bat bi aukera differentetan banatzen den puntuak.

- es**   bifurcación  
**fr**   bifurcation  
**en**   bifurcation

**bidexka**

Ik. bidezidor

14

**bidezidor (4)**

Sin. bidexka (4)

Mendi edo landetako bide meharra, oinezkoentzat edo abereentzat izan ohi dena. Erabileraaren arabera, izan daiteke: zirkularra (leku berean hasi eta bukatzen da); ekologikoa (balio ekologiko berezia du); ekipatua (kableak, eskubandak eta bestelako tresna lagungarriak ditu) nahiz pedagogikoa (kartelak, argibide edo informazio-panelak ditu).

- es**   sendero; senda  
**fr**   route; sentier  
**en**   trail

15

**bizkar (4)**

Lurreko goragune txiki eta luzanga, forma biribil eta maldak leunekoak.  
**es**   loma; lomo; espalda  
**fr**   colline  
**en**   hillock; low ridge

16

**borda (4)**

- es**   borda; chabola  
**fr**   hutte; refuge  
**en**   shelter; shack

17

**buzoi (4)**

Gailurretan kokatu ohi den forma eta tamaina askotako edukiontzia, gailurrera iristen direnek txartelak edo oharrak uzteko jartzen dena. Garai batean, ohikoa zen aurreko igoeran utzitako txartelak itzultzea, baina ohitura hori gero eta atzenduagoa dago gaur egun.

- es**   buzón  
**fr**   boîte; boîte aux lettres  
**en**   box

18

**cairn (4)**

Mendi-bideen ertzetan kokatutako harrizko piramidea, bidezidorra edo bidexka markatzen duena. Ohitura da ibiltariet harri-multzo horiek txukun eta egoera onean mantentzea, bidea beti ongi balizatua eta ikusgai egon dadin.

- es**   cairn  
**fr**   cairn  
**en**   cairn

**couloir**

Ik. korridore

19

**elur-jausi (4)**

Sin. elurrolde (4)

Mendi-hegal bateik bat-batean erortzen den elur- eta izotz-pila, askotan lurra, harriak eta bestelako hondakinak herrestan eramatzen dituena.

**es** avalancha de nieve; alud

**fr** avalanche

**en** avalanche

20

**elur-pala (4)**

Median, elurretan edo izotzean zuloak egiteko erabili ohi den tresna.

Beharrezkoa izaten da elur-jausi batean harrapatuak geratu direnak erreskatatzeko, edo, elurte handien ondotik, aterpeko ateraino bidea irekitzeko.

**es** pala de nieve

**fr** pelle à neige

**en** snow shovel

**elurrolde**

Ik. elur-jausi

21

**elurtegi (4)**

**es** nevero

**fr** puits à neige; glacière; puits à glace

**en** ice cave

22

**erdi-mailako mendi (4)**

**es** media montaña

**fr** moyenne montagne

**en** highland

23

**erlaitz (4)**

Mendi-hegalean kokatua dagoen harrizko ertz irtena.

**es** cornisa

**fr** corniche

**en** cornice

24

**erliebe (4)**

**es** relieve

**fr** relief

**en** relief

25

**erpín geodesiko (4)**

Latitudea eta longitudea zorrotzetasun handiz zehaztuak dituen puntuak, behaketa eta neurketa geodesikoetan erabilia; bereziki, leku hori adierazten duen seinale edo mugarririk berezia.

**es** vértice geodésico

**fr** point géodésique

**en** geodetic point

26

**erreka-zulo (4)**

Arroila txiki eta sakona, bereziki higatzeko errazak diren material edo lursailetan ur-korronteen higaduraz sortua.

**es** barranco

**fr** ravin

**en** ravine

27

**erreten (4)**

Sin. kanal (4)

Tamaina handiko pitzadura edo arraila, mendi-hegal batean goitik behera irekia.

**es** canal

**fr** canal

**en** channel

**erroitz**

Ik. amildegi

**28****ertz (4)**

Mendi baten bi isurialdeak bereizten dituen gailur-lerroa, gutxi-asko luzea, angelu irten moduko bat eratzen duena. Erlaitzak, arroilak nahiz irtenguneak eduki ditzake.

**es** arista**fr** arête**en** ridge**29****ezproi (4)**

Pareta edo harkaitz baten zati irtena, tamaina handi samarrekoak, pasaguneak edo korridoreak izan daitzkeen bi sakonuneren artean kokatua.

**es** espolón**fr** éperon**en** spur**30****gailur (4)**

Sin. tontor (4)

Mendi baten goragune edo punturik garaiena.

**es** cima; cumbre; pico**fr** cime; sommet**en** peak**31****gailur-lerro (4)**

Sin. gailurreria (4)

**es** cresterío; cresta; cordal**fr** crête**en** mountain crest**32****gailurraurre (4)**

Bigarren mailako gailurra, gailur nagusiaren aurretik eta hartatik gertu samar egon ohi dena

**es** antecima**fr** antécime**en** subsidiary peak**gailurreria**

Ik. gailur-lerro

**33****garaiera (4)**

Sin. altuera (4)

**es** altura**fr** hauteur**en** height**34****gidari (4)**

Sin. mendiko gidari

Bezeroak mendi-jardueretan gidatuz eta haiei lagunduz aritzen den mendiko profesionala.

**es** guía de montaña**fr** guide de montagne**en** mountain guide**35****glaziar (4)****es** glaciar**fr** glacier**en** glacier**36****goi-lautada (4)**

Garaiera handiko lurralte lau eta zabalatza.

**es** meseta**fr** plateau**en** plateau; plate**37****goi-mendi (4)**

Elur, izotz, klima, erradiazio ultramore, temperatura, oxigeno eta abarreko baldintza geografiko bereziak dituen mendiko zona, garaia baina altuera zehatz edo jakinik gabekoa. Garaiera horrek dituen baldintza bereziak direla medio, arriskuak gertatzen dira gizakiaren osasunerako, hala nola mendiko gaitza.

**es** alta montaña**fr** haute montagne**en** high mountain

38

**haitz** (4)

- es** peña  
**fr** rocher  
**en** rock

39

**haitzarte** (4)

Eremu menditsuko pasabide oso sakon eta estua, pareta pikoak eta malkartsuak dituena. Arroila baino txikiagoa izaten da.

- es** desfiladero  
**fr** défilé  
**en** narrow pass

40

**haitzulo** (4)

Sin. kobazulo (4)

- es** cueva; gruta  
**fr** caverne; grotte  
**en** cavern; grotto

41

**haran** (4)

Sin. ibar (4)

- es** valle  
**fr** vallée  
**en** valley

42

**harrate** (4)

Sin. lepo (4)

Bi mendi-tontorren edo goraguneren artean kokatutako sakonune zabala, sarritan isurialde batetik bestera pasatzeko erabili ohi dena.

- es** collado; portillo  
**fr** col  
**en** col

43

**harritza** (4)

- es** pedrera; pedriza; pedregal  
**fr** rocallie; pierrier; éboulis  
**en** scree

44

**hartxintxar** (4)

- es** cascajo  
**fr** gravillon  
**en** grit

45

**hegal** (4)

Sin. mazela (4)

Mendi edo bestelako goragune baten albo edo alderdi maldatsua, ibarbidea gailurren lerroarekin lotzen duena.

- es** ladera  
**fr** flanc; versant  
**en** slope

46

**helduleku** (4)

Paretak duen zuloa edo irtengunea, eskalada egiteko lagungarri gertatzen dena.

- es** agarre; presa  
**fr** empoignure; prise  
**en** hold

**horma**

Ik. pareta

47

**hurbilbide** (4)

- es** vía de acceso  
**fr** voie d'accès  
**en** access road

**ibar**

Ik. haran

48

**iboi** (4)

Aragoi aldeko Pirinioetako aintzira txikia, jatorri glaziarrekoa eta altuera handian dagoena.

- es** ibón  
**fr** ibon  
**en** tarn

**49****igarobide (4)**

- es** paso; pasaje  
**fr** passage  
**en** passage

**50****inbutu (4)**

Lurrazaleko sakonune, estugune edo zuloa, goiko aldea zabala eta behekoa estua duena.

- es** embudo  
**fr** entonnoir  
**en** funnel

**51****isurialdeen banalerro (4)**

Elkarren ondoan dauden bi arro hidrografiko banantzen dituen lerroa; bertatik, urak alde batera edo bestera doaz.

- es** divisoria hidrográfica; divisoria de aguas  
**fr** ligne partage eaux  
**en** drainage divide; watershed

**52****iturburu (4)**

- Sin. ur-begi (3)  
**es** manantial  
**fr** source  
**en** spring

**53****iturri (4)**

- es** fuente  
**fr** fontaine  
**en** fountain

**kanal**

Ik. erreten

**karkaba**

Ik. lubaki

**kobazulo**

Ik. haitzulo

**54****korridore (4)**

Sin. couloir (3)  
 Pasabide estua, terreno lauan zein maldan kokatua. Sarritan, bat egiten du igoera-biderik begi-bistakoarenarekin, denetan errazena ez izan arren.

- es** corredor; couloir  
**fr** couloir  
**en** gully

**55****lasterbide (4)**

Leku batera iristeko bide nagusia baino laburragoa eta normalean zailagoa eta nekosagoa den bide alternatiboa.

- es** atajo  
**fr** raccourci  
**en** short cut

**56****latitude (4)**

Lurreko edozein punturen eta ekuatorearen artean dagoen distantzia, gradutan neurta. Izan daiteke iparra nahiz hegoa, eta 0°-tik 90°-ra bitartekoan.

- es** latitud  
**fr** latitude  
**en** latitude

**57****leize (4)**

- Sin. leize-zulo (4)  
**es** sima  
**fr** gouffre  
**en** swallow-hole

**leize-zulo**

Ik. leize

**lepo**

Ik. harrate

58

**longitude (4)**

Lurreko edozein punturen eta 0º meridianoaren arteko distantzia, gradutan neurtaua. Izan daiteke ekialde nahiz mendebalde longitudea, eta 0º-tik 180º-ra bitartekoak.

**es** longitud

**fr** longitude

**en** longitude

59

**lubaki (4)**

Sin. karkaba (3)

Lurrazaleko ur-etorriek sortutako ildo estua.

**es** cárcava

**fr** fossé

**en** gully

60

**luizi (4)**

Sin. lur-jausi (3)

Mendi, hegal, harkaitz nahiz murru batetik lurra, harriak edo haitzak erortzea. Hainbat izan daitezke horretarako arrazoia: trumoi-ekaitzak, urtze-aldiak, lurzoru ez-egonkorak edo mugimendu tektonikoak.

**es** desprendimiento

**fr** éboulement

**en** fall of ground

**lur-jausi**

Ik. luizi

61

**makurgune (4)**

Bertikaltasuna gainditzen duen pareta, alegia 90 gradu sexagesimaletik gorako inklinazioa duena.

**es** desplome

**fr** surplomb

**en** overhang

62

**malfa (4)**

Sin. aldapa (4)

**es** pendiente

**fr** pente

**en** gradient; slope

63

**malkar (4)**

**es** escarpado; escarpa; escarpe

**fr** escarpe

**en** scarp

**mazela**

Ik. hegal

64

**mendi (4)**

Ingruko lurretatik nabarmenzen den goratasun handiko goragunea.

**es** montaña; monte

**fr** montagne

**en** mountain

65

**mendi-aterpe (4)**

Mendizale, alpinista nahiz txangozaleek mendian atseden har dezaten eta lo egin dezaten prestatutako babeslekua. Izan daiteke librea edo zaindua, eta horren arabera ordaindu behar da edo ez.

**es** refugio de montaña; albergue

**fr** refuge de montagne

**en** mountain hut; mountain retreat

66

**mendigune (4)**

Mendiak nagusi izanik, hainbat elementu geografikoz (mendi, haran, ordoki, aintzira, eta abarrez) osatutako multzoa, norabide orokor bat ez duena.

**es** macizo

**fr** massif

**en** massif

67

**mendikate (4)**

Mendiak nagusi izanik, hainbat elementu geografikoaz (mendi, haran, ordoki, aintzira, eta abarrez) osatutako multzo, sistema edo unitate orografikoa, luzea zabala baino gehiago dena eta norabide orokor bat duena.

**es** cordillera; cadena montañosa  
**fr** cordillère; chaîne de montagne  
**en** cordillera; mountain range

**mendiko gidari**

Ik. gidari

68

**mendilerro (4)**

Norabide orokor bat jarraitzen duen mendi-multzo edo azpimultzoa.

**es** sierra  
**fr** sierra  
**en** mountain chain

**mendixka**

Ik. muino

69

**morrena (4)**

**es** morrena  
**fr** moraine  
**en** moraine

70

**mugarri (4)**

Lursail, jabetza, eta abarren muga non dagoen edo, besterik gabe, bidea nondik barrena doan adierazteko jartzen den seinale edo harria.

**es** hito; mojón  
**fr** borne  
**en** boundary mark

71

**muino (4)**

Sin. mendixka (3)  
Lurreko goragune naturala, mendia baino txikiagoa eta lau alde edo orientazio geografikoetara hegalak dituena.

**es** colina; cerro  
**fr** colline; butte  
**en** hill

72

**orratz (4)**

Harkaitz puntazorrotza. Bakarrik ager daiteke edo mendi nahiz gailurreria baten zati gisa.

**es** aguja  
**fr** aiguille  
**en** needle

73

**pareta (4)**

Sin. horma (4)

Harrizko murru bertikala, mendi baten hegalean nahiz haitzarte edo zintzur batean kokatua. Maila teknikoan, inklinazioa 50 gradutik gorakoa denean erabiltzen da hitz hori.

**es** pared; muro  
**fr** paroi; mur  
**en** wall

74

**pitzadura (4)**

Sin. arrail (4)

Lurrean, haitzeten edo izotzetan sortzen den irekigune estu eta sakona.

**es** grieta; fisura  
**fr** crevasse  
**en** fissure

75

**saihesbide (4)**

Bide nagusitik atera eta geroago berriro bide nagusira itzultzen den bidea.

**es** variante  
**fr** variante  
**en** by-pass

**76**

**sarbide (4)**

**es** acceso

**fr** accès

**en** access

**77**

**serac (4)**

Glaziarretan, malda handiko zonetan bereziki, izotza pitzatzearen ondorioz sortzen diren bloke oso handi eta irregularretako bakoitza.

**es** serac

**fr** sérac

**en** serac

**78**

**sorburu (4)**

Ibai edo erreka baten sorlekua den iturburua.

**es** nacedero

**fr** source

**en** source

**tontor**

Ik. gailur

**79**

**tximinia (4)**

Harkaitzean edo izotzean barrutik gora igotzeko adina zabala den pitzadura estu eta batzuetan bertikala. Arraila eskalatzialearen gorputza baino zabalagoa izaten denez, eskalatzialeak oposizioan igo ohi dira tximinietai barrena, oinak pareta batean eta bizkarra bestean bermatuz alegia, “ramonage” izeneko teknika edo “lau hankakoa” baliatuz.

**es** chimenea

**fr** cheminée

**en** chimney

**ur-begi**

Ik. iturburu

**80**

**ur-jauzi (4)**

Uhar bateko urak amildegian edo labarrean behera erortzea.

**es** cascada; salto de agua

**fr** cascade

**en** waterfall

**81**

**via ferrata (4)**

Mendiko ibilbidea. Bertan, zaitasun-maila diferentea duten hainbat eskalada-zona gainditu behar izaten dira: harkaitzean finkatutako maila metalikoak, kableak, eskalak, pasabideak, etab.

**es** vía ferrata

**fr** parcours ferré

**en** via ferrata

**82**

**zirku glaziar (4)**

**es** circo glaciar

**fr** cirque glaciaire

**en** cirque

## 2. MENDIZALETASUNA, KIROL GISA

83

### **aklimatazio (4)**

Oxigeno gutxiko giroan ordu batzuk egin ondoren (eta horixe gertatzen da goi-mendian), gorputzak hipoxiari aurre egiteko martxan jartzen dituen mekanismoen multzoa. Horien artean dago, esate baterako, poliglobulia, globulu gorriei oxigenoa garraiatzeko ahalmena gehitzen dien; gorputzak altuera handian zortzi-hamar egun dramatzanean gertatzen da hori. Goi-altuera jakin batean zenbait egun edo aste egiteak girorapena errazten du, eta aklimatazio horrek, bide batez, garaieran jarduera fisikoa hobetzeko aukera ematen dio mendizaleari.

**es** acclimatación

**fr** acclimatation

**en** acclimatization

84

### **alpinismo (4)**

Jatorrian Alpeetako gailurretarra igotzean zetzan kirola; hedapenez, edozein menditara igotzea. Bereizi beharra dago alpinismoaren (edo mendizaletasunaren) eta txangozaletasunaren artean. Azken hori, inoiz mendiak igotzen badira ere, gehiago da ibili eta ikusiz gozatzeko kirola. Alpinismoan, ordea, helburu nagusia gailur zail eta garaiak gainditzea da.

**es** alpinismo

**fr** alpinisme

**en** mountaineering

85

### **alpinista (4)**

**es** alpinista

**fr** alpiniste

**en** mountaineer

### **anoa-postu**

Ik. hornidura-zona

86

### **arroilla-jaitsiera (4)**

Abentura-kirola, eskaldan erabiltzen diren jaitsierako teknikak baliatuz mendiko ibaien ibilguetan eta uharretan behera jaistean datzana. Kirol horretan, ibiltzea, rapplean egindako jaitsierak eta igeriketa konbinatzen dira.

**es** descenso de cañones; descenso de barrancos

**fr** descente de canyon; canyonisme

**en** canyoning

87

### **bibak (4)**

Goi-mendian kokatuta dagoen aire zabaleko lekua, gaua izarpean edo gehienez ere kanpadenda indibidual batean emateko prestatzten dena. Horretarako, harriak jartzen dira zirkulu-erdia baten forma emanetza pareta moduko bat osatuz, haizearen indarrari aurre egiteko. Hedaduraz, igoera bat egiten ari denari gaua pareta batetik zintzilik emateko modua eskaintzen dion behin-behineko instalazioa.

**es** vivac

**fr** bivouac

**en** bivouac

### **bibak egin**

Ik. bibakeatu

88

**bibakeatu (4)**

Sin. bibak egin (4)

Gaua izarpean eman, aire zabalean, kanpadendarik gabe alegría.

**es** vivaquear

**fr** bivouaquer

**en** bivouac; camp out

89

**bide (4)**

**es** ruta

**fr** route

**en** road

90

**bidea ekipatu (4)**

Sin. bidea hornitu (4)

Mendi-igoera batean, tarte bereziki zail bat ainguratze-puntuz eta sokaz behar bezala prestatu, errazago gainditu ahal izateko.

**es** equipar una vía

**fr** équiper une voie

**bidea hornitu**

Ik. bidea ekipatu

91

**bidetik kanko (4)**

**es** fuera de sendero

**fr** hors sentier

92

**bilgune (4)**

Sin. elkargune (4)

Eskalatzen ari den bidearen luze baten amaieran dagoen puntu zehatza. Bertan, soka-talde bateko kideak biltzen dira hurrengo luzeari ekin aurretik.

**es** reunión; punto de reunión

**fr** relais

**en** belay station

93

**desnibel (4)**

Bi puntu jakinen artean dagoen maila edo altuera-aldea. Mendian, ibilbideari ekiteko irteera-gunearen eta iritsi nahi den punturik altuenaren (dela aterpearen, aintzira edo lakuaren nahiz gailurraren) arteko diferentzia adierazteko erabili ohi da.

Altimetroarekin nahiz GPSarekin neur daiteke.

**es** desnivel

**fr** dénivellation; dénivelée

**en** altitude difference

94

**desnibel metatu (4)**

**es** desnivel acumulado

**fr** dénivellation cumulée

**en** cumulative elevation gain

95

**ekinaldi (4)**

Sin. saio (4)

**es** intento

**fr** essai

**en** attempt

**elkargune**

Ik. bilgune

96

**eskalada (4)**

Leku bertikal, malkartsu edo pikoetan gora egitea, oinez gain eskuak ere baliatuz, baliabide artifizialak erabiliz edo erabili gabe. Eskalada modu askean egin daiteke, edo bestela, escalada artifiziala, kirol-eskalada edo escalada mistoa izaten da, erabilitako progresioko baliabideen arabera.

**es** escalada

**fr** escalade

**en** climbing

97

**eskalada-bide (4)**

- es vía de escalada  
fr voie d'escalade  
en climbing route

**eskalada-murru**

Ik. rokodromo

98

**eskalatu (4)**

- es escalar  
fr grimper; escalader  
en climb

99

**eskalatzaire (4)**

- es escalador  
fr grimpeur  
en climber

100

**eski alpetar (4)**

- es esquí alpino  
fr ski alpin  
en alpine skiing

101

**espedizio (4)**

- es expedición  
fr expédition  
en expedition

102

**gailurrera heldu (4)**

- Sin. gaina hartu (3)  
es coronar; hacer cumbre  
fr faire sommet  
en get to the top; reach the summit

**gaina hartu**

Ik. gailurrera heldu

103

**goi-kanpamentu (4)**

- es campamento de altura  
fr camp d'altitude  
en altitude camp

**GR**

Ik. mendiko ibilbide luze

**herio-gune**

Ik. heriotzaren zona

104

**heriotzaren zona (4)**

- Sin. herio-gune (4)  
Goi-mendian, 7.500 metrotik gora kokatua dagoen zona. Horrela esaten zaio garaiera horretatik gora gorputza modu atzeraezinean hondatzten delako, errekuperatzeko gaitasunik gabe, bertako oxigeno-kantitatea ez baita bizitari eusteko adinakoa. Horregatik, ahalik eta gehien murriztu behar da maila horretan egiten den egonaldia.

es zona de la muerte

fr zone de la mort

en death zone

**hornidura-gune**

Ik. hornidura-zona

105

**hornidura-zona (4)**

- Sin. hornidura-gune (4);  
anoa-postu (3)  
es control de avituallamiento  
fr zone de ravitaillement  
en feeding station

106

**hurbilketa (4)**

Igoerari ekin aurretik helburuaren norabidean egiten den distantzia. Esaterako, autoa utzi dugun lekutik gaua emango dugun aterperaino edo bibakeraino dagoen distantzia.

**es**      aproximación

**fr**      approche

**en**      approach

107

**ibilaldi neurtu (4)**

**es**      marcha regulada

**fr**      randonnée à allure régulée

**en**      timed walk; timed hike

108

**ibilbide (4)**

Igoera, zeharkaldi edo eskalada batean jarraitu beharreko bidea. Hedaduraz, ibilbide hitzak, sarritan, leku batetik bestera joateko pasatu beharreko leku guztien deskripzioa ematen du, eta ingurune horri buruzko oharrak ere adierazten ditu.

**es**      itinerario

**fr**      itinéraire

**en**      itinerary

**ibilbide labur**

Ik. mendiko ibilbide labur

**ibilbide luze**

Ik. mendiko ibilbide luze

109

**igoera (4)**

**es**      ascensión; subida

**fr**      montée; ascension

**en**      ascent; rise; climb

110

**igoera-abiapuntu (4)**

**es**      base de ascensión

**fr**      base d'ascension

**en**      base of ascent; bottom of the ascent

111

**igotzeko bide arrunt (4)**

Gailur batera daraman ibilbiderik errazena, ezagunena eta erabiliena. Hala ere, horrek ez du esan nahi bide hori, zaitasun-mailari dagokionez, erraza denik.

**es**      vía normal de ascensión

**fr**      voie normale d'ascension

**en**      normal ascent route

112

**ikuspen (4)**

**es**      visibilidad

**fr**      visibilité

**en**      visibility

113

**inguratu (4)**

**es**      bordear

**fr**      contourner

**en**      go round

114

**iraupen-eski (4)**

**es**      esquí de fondo

**fr**      ski de fond

**en**      cross-country skiing

115

**iraupen-ibilaldi (4)**

**es**      marcha de fondo

**fr**      marche de fond

**en**      long distance walk

116

**jaitzsiera (4)**

**es**      descenso; bajada

**fr**      descente

**en**      descent

117

**kanpamentu nagusi (4)**

**es**      campamento base

**fr**      camp de base

**en**      base camp

118

**kanpatu (4)**

- es** acampar  
**fr** camper  
**en** camp out

119

**katuka igo (4)**

- es** trepar  
**fr** grimper  
**en** scramble

120

**katuka jaitsi (4)**

- es** destrepar  
**fr** dégrimper  
**en** downclimb

121

**lehen eskalada (4)**

- es** primera escalada  
**fr** première escalade; première ascension  
**en** first ascent

122

**luze (4)**

Bi bilguneren arteko eskalada-tartea; sokaren luzera baino txikiagoa izan ohi da, hau da, 40-45 metrokoa.

- es** largo de cuerda  
**fr** longueur  
**en** pitch

123

**mendi-ibilaldi (4)**

- es** marcha de montaña  
**fr** marche en montagne  
**en** hiking

124

**mendi-ibili (4)**

Bidezidorra, xendak, bidexkak, abelbideak eta, oro har, zaitasun tekniko gehiegirik gabeko bideak oinez ibiltzean datzan jarduera fisikoa edo kirola. Zentzu hertsian ibilketaren sinonimoa ez bada ere, mendi-ibilien barruan sartzen da ibilbide bat, balizatua izan nahiz ez, oinez egitea.

- es** senderismo  
**fr** balade à pied  
**en** rambling

125

**mendi-lasterketa (4)**

- es** carrera de montaña; competición de montaña  
**fr** course de montagne  
**en** mountain-race

**mendi-zeharkako eski**

Ik. mendiko eski

126

**mendiko bizikleta (4)**

Lurzorua edo ibilbide naturalaren gorabeheretara bereziki egokitua dagoen bizikleta.

- es** bicicleta de montaña  
**fr** vélo de montagne  
**en** mountain bike

127

**mendiko eski (4)**

Sin. mendi-zeharkako eski (4)

- es** esquí de travesía; esquí de montaña  
**fr** ski de randonnée  
**en** ski-mountaineering; ski-touring

128

**mendiko ibilbide labur (4)**

Sin. ibilbide labur (4); PR (4)

- es** sendero de pequeño recorrido; pequeños recorridos; PR  
**fr** Petite Randonnée; PR  
**en** short distance footpath

129

**mendiko ibilbide luze (4)**

- Sin. ibilbide luze (4); GR (4)
- es** sendero de gran recorrido; grandes recorridos; GR
- fr** Grande Randonnée; GR
- en** long distance footpath; hiking trail

130

**mendizale (4)**

Mendizaletasuna praktikatzen duen pertsona.

- es** montañero
- fr** montagnard
- en** mountaineer

131

**mendizaletasun (4)**

Funtsean mendiak zeharkatu eta gailurretarra igotzean datzan kirol-jardueren multzoa. Gehienetan, plazer hutsez egiten da, baina baita esplorazio-gogoak edo premia zientifikoak bultzatuta ere. Kirolaren ikuspegitik, mendizaletasunak igoera eta ibilaldi erraz samarrak hartzen ditu, alpinismoak edo eskaladak ez bezala, baina txangolaritzak, senderismoak edo mendi-ibiliak berezkoak dituztenak baino zailagoak, dena den. Mendi-bizikleta eta mendian egiten diren beste kirol batzuk ez dira, zentzu hertsian, mendizaletasunaren barruan sartzen.

- es** montañismo
- fr** alpinisme
- en** mountaineering

132

**monitore (4)**

Median, eskaldan, eskian eta abarretan erakusle, begirale edo lagunzaile gisa aritzen den teknikaria.

- es** monitor
- fr** moniteur; instructeur
- en** instructor

133

**orientazioko ibilaldi (4)**

Balizatu gabeko lursail batean, maparen nahiz iparrorratzaren laguntzarekin egiten den ibilaldia.

- es** marcha de orientación
- fr** marche d'orientation
- en** orienteering hike

PR

Ik. mendiko ibilbide labur

134

**rappel (4)**

Eskaladako teknika edo maniobrak klasikoentakoak: puntu finko batetik (harkaitz-irtengune, pitoi, begizta, trabagailu edo zuhaitz batetik) jaistea, soka bikoitza erabiliz eta arnesari lotuak doazen jaiskailu izeneko osagai metalikoak baliatuz. Era horretan, abiadura eta jaitsiera osagai horien eta sokaren arteko marruskadura bidez kontrolatzen dira. Ondoren, soka berreskuratzeko, soka-muturretako batetik tiratu behar da.

- es** rappel; rápel
- fr** rappel
- en** abseil

135

**rokodromo (4)**

Sin. escalada-murru (3)

Mendiaren harrizko pareta simulatzen duen egitura artifiziala. Bertan helduleku finkoak egoten dira eta zaitasun tekniko desberdineko bideak ere bai. Rokodromoak

entrenamenduetan erabiltzen dira gehienbat, baina lehiaketak ere antolatzen dira berorietan.

- es** rocódromo
- fr** mur d'entraînement
- en** artificial training wall

**saiò**

Ik. ekinaldi

136

**soka-talde (4)**

Mendian, beren segurtasuna areagotzeko, soka berarekin lotuak doazen alpinisten taldea.

**es** cordada

**fr** cordée

**en** roped party

137

**sokaz lotu (4)**

**es** encordarse

**fr** s'encorder

**en** rope up

**trabesia**

Ik. zeharkaldi

138

**trekking (4)**

Iriside zaileko eskualdeetan oinez egiten den ibilbide turistikoa. Hasiera batean soilik Nepaleko kontua izan bazen ere, gaur egun mundu osora zabaldua dago. Helburu nagusia mundua ikusi eta pertsonak ezagutzea izaten da eta, salbuespeneko kasuetan, mendiak igotzea. Garraiatzaileen eta zamarien laguntza ere izaten da kasu batzuetan materiala eramateko.

**es** trekking

**fr** trekking; randonnée pédestre

**en** trekking

139

**xerpa (4)**

Ekialdeko Nepaleko biztanlea, jatorriz tibetarra. Mendebaldeko mendizaleentzat laguntzailerik onena izan zen garai batean -eta bada, oraindik ere- goiko kanpalekuetara zamak garraitzeko eta Himalaiako gailurretarako saioak egiteko.

**es** sherpa

**fr** sherpa

**en** sherpa

140

**zaitasun-maila (4)**

Mendiko ibilbideek izan dezaketen zaitasun teknikoa, errazenetik zailenera ordenatuta, adierazten duen azalpeneko eskala. Gaur egun, eskala horren baliokideak erabiltzen dira abenturakirol guztietan (eskian, piraguismoan, espeleologian, arroilen jaitsieran, eskaladan, etab.).

**es** grado de dificultad

**fr** degré de difficulté

**en** degree of difficulty

141

**zamaketari (4)**

**es** porteador

**fr** porteur

**en** porter

142

**zeharkaldi (4)**

Sin. trabesia (3)

Iraupen luzeko ibilbidea, irteera eta ailegaera leku diferenteetan eduki ohi dituena.

**es** travesía

**fr** traversée; parcours

**en** crossing

143

**zelaiian joan (4)**

**es** llanear

**fr** marcher en terrain plat

**en** cruise; coast along

### 3. EKIPAMENDUA. TRESNERIA

144

#### ainguratze (4)

Soka bat edo kable bat pasatzeko, harkaitzean, izotzean edo zuhaitz batean jartzen den babes-sistema.

**es** anclaje

**fr** ancrage

**en** anchor

#### alpinismoko bota

Ik. mendiko bota

145

#### altímetro (4)

Leku batek erreferentzia-puntu jakin batekiko –normalean itsas mailarekiko– duen garaiera neurtzeko erabiltzen den aparatura. Aire atmosferikoaren zutabeak barruko mintz baten gainean ezartzen duen pisua neurtuz funtzionatzen du altímetroak. Zutabe horrek pisu jakin bat dauka, eta markatzen duen kopurua presio atmosferikoa da. Altímetroaren funtzionamendua barometroaren antzekoa da, baina alderantziz; beraz, zenbat eta gehiago igo, gutxiago pisatzen du aire-zutabeak.

**es** altímetro

**fr** altimètre

**en** altimeter

146

#### ARVA (4)

Sin. elur-jausien biktimak bilatzeko aparatu (4)

Behe-maiztasuneko igorgailu/hargailua, elurretan istripuren bat gertatuz gero elur-jausiaren azpian estalita geratu diren biktimak zehaztasun handiz lokalizatzeko modua ematen duena. Pila bidez elikatzen da, 200-300 orduko autonomia du igorpenari dagokionez, eta 30-50 ordukoa besterik ez, hargailu moduan.

**es** ARVA; aparato de búsqueda de víctimas de avalancha

**fr** ARVA; appareil de recherche de victime d'avalanche

**en** avalanche beacon

#### aseguru

Ik. segurtagailu

147

#### azpantar (4)

Botak eta galtzen beheko aldea estaltzen dituen zorro moduko jantzi teknikoa. Elurretan ibiltzeko ez da nahikoa bota iragazgaitzak eramatea, elurra boten barrura sartzen baita, oinak bustiz. Azpantarrek hori saihesten dute, botaren goiko partea eta galtza-zangoa edo zangoa bera estaltzen baititzte. Komeni da azpantarrak transpiragariak izatea.

**es** polaina

**fr** guêtre

**en** gaiter

148

**bibak-zaku** (4)

Bibaketan lo-zakua erabat estali eta kanpoko ur, haize eta hotzeturik isolatua mantentzeko erabiltzen den objektua. Transpirazioa kanporantz irteten ondo uzten duten eta aldi berean nahiko iragazgaitzak diren materialez eginak izan ohi dira.

- es** saco de vivac; funda de vivac
- fr** sur-sac de bivouac; sac de bivouac
- en** bivouac sack; bivy sack

149

**bizkar-zorro** (4)

Sin. motxila (3)

Zaku forma duen tresna, material erresistentez egina, mendian igoeratik ekiteko beharrezkotzat jotzen diren objektuak bizkarrean hartuta garraiatzeko erabiltzen dena.

- es** mochila
- fr** sac à dos
- en** backpack

150

**buff** (4)

Lepo-berogarri mota bat, txano gisa ere erabil daitekeena.

- es** buff; bufanda multiuso
- fr** buff; foulard multi-usages
- en** muffler

151

**buru-beroki** (4)

- es** pasamontañas
- fr** passe-montagne
- en** balaclava

**denda**

Ik. kanpadenda

152

**edari isotoniko** (4)

- es** bebida isotónica
- fr** boisson énergétique
- en** isotonic drink

153

**eguzkitako krema** (4)

- es** crema solar
- fr** crème solaire
- en** suntan emulsion; sunscreen

154

**elur-erraketa** (4)

Mendiko botari akoplatzen zaion objektua, azalera handiagoa hartzeko eta, horri esker, elur bigunean ez hondoratzeko erabiltzen dena.

- es** raqueta de nieve
- fr** raquette à neige
- en** snowshoe

**elur-jausien biktimak****bilatzeko aparatu**

Ik. ARVA

155

**elurretako betaurreko** (4)

Mendian begiak gehiegizko argiztapenaren kalteetatik babesteko erabiltzen den objektua.

- es** gafas de nieve
- fr** lunettes de neige; lunettes de montagne
- en** snow-goggles

156

**eskalada-kasko** (4)

Material gogor eta erresistentekin fabrikatutako tresna, burua harri edo elur-jausietatik babesteko eraman ohi dena.

- es** casco de escalada
- fr** casque
- en** helmet

157

### **eskaladako arnes (4)**

Uhalez eta begitzaz osatutako sistema, gorputz-atal batzuen inguruan, gerrialdearen eta enborraren inguruan bereziki, eraman ohi dena. Arnes hori segurtasuneko soka bati lotuz, errazago ibiltzeko edo eskalatzeko modua izaten du mendizaleak.

**es** arnés de escalada

**fr** harnais d'escalade; baudrier

**en** full-harness

158

### **eskalatzeko oinetakoak (4)**

Sin. katu-oinak (3)

Goma egosiz egindako zola duten oinetako bereziak. Zola horrek itsaspen handia ematen die, eta, horregatik, kirol-eskaladan edo zaitasun handiko eskalada tradizionalean erabiltzen dira.

**es** pies de gato

**fr** chaussons d'escalade

**en** climbing shoes

159

### **eskularru (4)**

Eskuak estali eta babesteko erabiltzen den jantzia. Eskuzorroaren kasuan ez bezala, eskularruan hatz bakoitzak bere leku propioa dauka, bere kasa mugitzeko modua ematen diona.

**es** guante

**fr** gant

**en** glove

160

### **eskuzorro (4)**

Eskua estaltzen duen jantzia, eskularruek ez bezala erpuruarentzat hatz-leku berezi bat eta gainerako hatz guztientzat beste hatz-leku bat daukana.

**es** manopla

**fr** moufle

**en** mitt

161

### **euritarako zira (4)**

Sin. zira (4)

Mendizalearen gorputza, burutik hasi eta belaunetaraino babesten duen jantzia. Mota eta material askotakoak izan daitezke: PVCkoak, nylonezkoak, forratuak edo ez, txanoarekin nahiz gabe...

**es** chubasquero; cortalluvia

**fr** ciré; coupe pluie

**en** slicker; rain cut

### **Global Positioning System**

Ik. GPS

162

### **Gore-Tex (4)**

Urarekiko iragazgaitza eta airearekiko iragazkorra den ehuna, mendian erabili ohi diren hainbat jantzi egiteko baliatzen dena.

**es** Gore-Tex

**fr** Gore-Tex

**en** Gore-Tex

163

### **GPS (4)**

Sin. Global Positioning System (4)

Lokalizazio-sistema, une jakin batean posizio geografiko bat zehazteko modua ematen duena. Horretarako, Lurraren inguruan orbitan jarritako sateliteek igortzen dituzten seinaleak baliatzen ditu. Hiru satelite erabiltzen ditu, gutxienez, triangelukatze egokia lortzeko, eta laugarren satelite batekin, altitudea ere kalkula dezake, gehienez ere 20 metroko errore-marjinarekin. Oinarritzko datu horiez gain, beste hainbat baliabide ere adierazten ditu (ibilbidearen norabidea, egindako bidea, bi punturen arteko distantzia, etab.).

**es** GPS; Global Positioning System

**fr** GPS; système de localisation

**en** GPS; systeme GPS

**en** GPS; global positioning system;

**en** GPS system

164

**hamaka (4)**

Eskalada-bide batean zehar paretan zintzilik dagoela, eskalatzialeak atseden hartzeko edo bibakeatuz gaua pasatzeko erabiltzen duen objektua.

**es** hamaca

**fr** hamac

**en** hammock

165

**iltze (4)**

Hainbat forma eta tamainatako pieza metalikoa, harkaitzetako pitzaduretan edo izotzean sartu ohi dena, era horretan ainguraketa-puntu artifizialak lortzeko.

**es** clavo

**fr** clou

**en** spike

166

**iparorratz (4)**

Orientazioko tresna, kutxa baten barruan inolako marruskadurari gabe aske biratzen duen orratz imantatu batez osatua. Era horretan, Lurrak berez duen magnetismoa baliatzen du orratzak, eta ipar magnetikoa adierazteko erreferentzia fidagarria da.

**es** brújula

**fr** boussole

**en** compass

167

**jaiskailu (4)**

Rappel egitean soka irristatzen uzten duen aparatura, jaitsiera-abiadura kontrolatzeko aukera ematen duena.

**es** descendedor; descensor

**fr** descendeur

**en** descender

168

**jantzi polar (4)**

Ahalik eta babesik handiena eskaintzeko pentsatutako materialez osatutako jantzia, oso transpiragarria eta iragazkorra.

**es** forro polar

**fr** polaire

**en** polar wear

169

**kanpadenda (4)**

Sin. denda (4)

Mendian gaua pasatzeko, babestuta egoteko edota aldi baterako bizitzeko erabiltzen den objektua. Forma eta tamaina desberdinak ditu, eta erraz eraman daiteke leku batetik bestera.

**es** tienda de campaña

**fr** tente de camping; tente

**en** camp tent; tent

170

**kantinplora (4)**

**es** cantimplora

**fr** gourde; bidon

**en** hydration bag

171

**kartografia (4)**

**es** cartografía

**fr** cartographie

**en** mapping

**katu-oinak**

Ik. eskalatzeko oinetakoak

172

**kopeta-argi** (4)

Hasiera batean espeleologoek erabiltzen zuten argiztapen-sistema, gaur egun aski zabaldua. Buruan lotua eraman ohi denez, eskuak libre daude pioleta edo makila teleskopikoa eramateko, edo eskalada-teknikei heltzeko, jarraitu beharreko bidea erakusten duelako. Kopeta-argiari esker, beste eginkizun batzuk ere (afaria prestatu, motxila barruan gauzak bilatu, etab.) erosoago eta arinago egin daitezke, edo, laino artean, gauez edo ikuspen gutxiko uneetan, errazago egiten da aurrera.

**es** frontal; linterna frontal

**fr** lampe frontale

**en** headlamp

173

**korapilo** (4)

**es** nudo

**fr** noeud

**en** knot

**kordel**

Ik. kordino

174

**kordinlo** (4)

Sin. kordel (3)

7 milimetroz azpiko diametroa duen soka, gailur-lerro edo glaziar batean barrena aurrera egiteko erabili ohi dena. Horrez gain, aldian behin rappel laburrak egiteko aukera ere ematen du.

**es** cordino

**fr** cordelette

**en** accesory rope

175

**kranpoi** (4)

Punta metalikoz osatutako gainzola, izotzaren eta eluraren gainean errazago ibiltzeko eta itsaspen nahiz atxikidura hobea lortzeko mendiko botetara egokitzen dena. Mendiko botaren zolak elurretan markarik uzten ez duenean erabiltzen dira kranpoia, eta izotzean, berriaz, kasu guztietan.

**es** crampón

**fr** crampon

**en** crampon

176

**krokis** (4)

Mapa-mota berezia, ibilbideen ohar grafikoak eskaini eta horietako ezaugarri nabarmenen berri ematen duena.

**es** croquis

**fr** croquis

**en** sketch

177

**larrialdietako botika-kutxa** (4)

Poltsa batean bilduta eraman ohi diren osagai eta medikamentuen multzoa, mendian sendaketa txikiak egin ahal izateko erabiltzen dena.

**es** botiquín de primeras urgencias

**fr** trousse de soins d'urgence;  
trousse de premiers soins

**en** first-aid kit

178

**lo-zaku** (4)

Zaku forma duen objektua; barruan sartuta gaeuko hotzetik babestuta lo egiteko baliatzten da.

**es** saco de dormir

**fr** sac de couchage

**en** sleeping bag

179

**lumazko anorak (4)**

- es** plumífero  
**fr** veste-duvet  
**en** duvet jacket

180

**magnesio (4)**

Hauts moduan saltzen den magnesio karbonatoa, eskalatzeko orduan eskuetako transpirazioa saihesteko erabiltzen dena.

- es** magnesio  
**fr** magnésie  
**en** magnesium; chalk

181

**maindire-zaku (4)**

- es** saco sábana  
**fr** drap de sac  
**en** travel sheet

182

**makila (4)**

- es** bastón  
**fr** bâton  
**en** hiking stick; walking pole

183

**makila teleskopiko (4)**

Luzatu eta laburtu egin daitekeen makila. Bata bestearen barnean sar daitezkeen piezak ditu, sekzio gero eta txikiagokoak, eta, horrela, norberaren nahierara ezar daiteke makilaren luzera.

- es** bastón telescópico  
**fr** bâton télescopique  
**en** telescopic walking pole

184

**mapa (4)**

